

Ahozkoaren corpusen emendioa literatura-eredurako¹

ADOLFO AREJITA

In memoriam

Neure saiotxo hau Gotzon Garate irakaslearen gomutaz eskaini nahi nuke, atzo goizean jaso baikenuen bere heriotzearen berria, herenegun gauean gertatua. Batetik, mintzagai dudan gaia, berak batez ere azken hamarkadetan gehien landu dituen herri-literatura eta herri hizkeraren gaiei guztiz atxikia dagoelako: haren *Atsotitzak* bilduma, 30.000tik gora errefrau euskarazko barrenean biltzen dituena, haren *Erdarakadak* hiztegi aholkugilea, eta laster sarean ikusiko den *Esamolde* edota lokuzioen bilduma, gaixotu orduan amaiturik utzi duena. Bestetik, irakasle naizen Deustuko Unibersitatean hasiera bertatik izan baitut lankide Letren Fakultateko Euskal Filologia adarrean, eta baita aholku-emaila on ere euskararen eta beste gai askoren gainean. Goian bego.

0. Hitzalditxo honen zioez

Ahokotasuna diot neure izenburuan, euskaraz gutxi erabiliriko hitza, nolabait inguru-erdaretan ‘oralidad, oralité, orality edo *das Mündliche*’ ohi denaren ordezkotza. Adjektiboa dugu ezagunago kontzeptu horretarako hurreko hizkuntzetan: *ahozkoa*, hau da, ‘oral, mündlich’. Hizkuntzari gagozkionean *ahozko hizkuntza / hizkera* darabiltzagu, eta ele ederrez mintzo garelarik, *ahozko literatura*. Kontzeptu honen garapen-hedapena, idatzizkoaren aurrez aurre gertatu da, haren antonimo edo aurrez aurreko zentzua edo arloa adierazi, bereizi eta zehazteko. Beste hitz bat ere usu

¹ Txosten hau, 2008aren urrian irakurri zenetik eta hona zenbait puntutan orraztu eta gehitua, eta batez ere harrezkeroko bibliografiaz osatua izan da.

erabilia da eremu beretsua adierazteko: herri-, batez ere herri-literaturaz dihardugunean.

Ahokotasuna, hizkuntzari datxikala, termino zabala da berez, artea dena eta ez dena ere barruan hartzeko modukoa, eta nolanahi ere literatura hitzak batez ere idatzizkoa gogorarazten digunez -ahozko literaturaz ere xx. mendearen hasieratsutik aurrera asko mintzatu eta ikertu den arren-, eta ahots edo mintzo bidez jalgitzen diren testuak neurri txikian baino literatura ez izaki, termino egokiagoa deritzagu *ahozkotasun* delako honi, guk gogoeta gai darabilgun arlorako.

Pirinioetako Hizkuntzei eskainiriko XVI. Biltzar honek antzinate zaharrean izan du abiapuntua, eta “Hizkuntzak eta gizarteak” deritzan hirugarren sail honetan, eratzaillei adiutu begitandu zaie ahokotasunaren ertz hau nik uki dezadan, harako Etxalarren iazko apirilean aurkeztu nuen ahozko ondarea biltzeko egitasmoaren kariatara.

Esanari men eginez, gogoeta apur batzuk, ahozko edukien corpusek euskal hizkuntzari oro har, baina euskara idatziari eta berariaz literatura barrutikoari ekar diezaizkiokeen onurez eta abantailez.

1. Ahozkoaren txertoa literaturaren ibilbidean

Gomutagarri gisa, esan dezadan euskal literatura osoak, lehen hasikineta-rik ondoko mendez mendeko joanean, bidelagun hurreko eta estua izan due-la ahozko hizkera, landu diren genero guztietan: dela hitz neurtuz, dela hitz lauz, dela antzerki generoko solas-autuetan. Baina ez da hau lekua, ahozko-idatzien arteko interakzio historikoez jarduteko. Bai hala ere baieztatu, orain-tsuko aurkikundea den Lazarragaren poesietarik edota Etxeparerenetatik hasi, erretrau-bildumetan, kantu-tipo zaharretan —amodiozko, epiko, erlijiozko edo ziri-bertso direla—, balada zaharretan, herri-teatroan, gutun-erian... eta azkenik gure oratoria erlijioso ugariagoan gaindi, herri-hizkeraren geriza ez dabilela testu idatzietarik urrun, ondo-ondotxoan baino. Bestela esanda, tradizio landuari edo aurreko testu idatzien ereduari baino askoz gehiago zor dio gure literatura zaharrak, den generoa dela, inguruko ahozko espresioari eta estiloari.

Aurreko aldi luzeetan erakunde politiko egonkorrak eta bertokoak eta euskarari ageriko ezaguera onartuko ziotenak ez izanak baldintzatu du gure eredu literarioen ibilbide sakabanatua, edo bestela esanda, tokian tokiko eta

aldian aldiko izkribuak euren aurretikoen eredukoak edo ildokoak izatea. Horrela gertatu da gurean literatura idatzi etenez betea; aldian aldiko loraldi batzuk gorabehera, ilunaldiz zarratuago den historia, argialdiz baino. Eta hala, literatura tradizio baterako bidea urratu eta finkatzeko urratsak eman direnean ere, erauntsi politiko-sozialen zibi-zabuan erkinduz eta ahulduz joan da hurrengo aldian. Horrek behartu du, besteak beste, euskal literatura idatzia aldian aldiko ahozko hizkera eta erregistroetara adi jartzera, hartatik xurgatzera.

Elizak, batez ere Trentoko kontzilioaz geroz hedatu zuen doktrinagintza-ahalegina, izan da literatura idatzi klasikoaren habe eta sostengu. Eta dotrina-tze-lan horretarako finkatu den hizkerak, entzule eskolagabeen belarrietara ekantzeko modukoa behar zuen gehienetan; nahiz, denboran aurrera egin ahala, jende irakurri eta eskolatuari zuzentzen joan zen —batez ere elizgizon, eskribau, mediku eta beste goi-lanbidekoren batzuk, jende ikasia, baina ez euskararen trebatua— eta haietarikoak irakurtzeko eran ere ontzen hasi ziren izkribu-liburuak, idazkerak ere beste jaikitasun bat hartzen zuela. Herri-hizkeraren ekarria, hala ere, nagusi oro har.

Euskal teatro zaharrean, erdi eta sartaldeko adibide pare bat: Pedro Barrutia eskribauaren *Gabonetarako Ekinaldia* (*Acto para la Nochebuena*) eta Peñafloredaren *Mozkor burlaz hartua* (*El borracho burlado*) gaztelania-euskarazkoa adibide apalak dira izan, baina adierazgarriak. Idazle bata aramaioarra, bizi-moduz Mondragoera etorria; bigarrena, azkoitiarra, Azkoitiko Zalduntxoeren burua, bere antzerkitxoaren Bergaran ospatzekoak ziren jaietan jokatzeko ondu zuena. Zeinek bere hizkeran idatzi zuen; etxe-auzo-kaleetan ikasi eta entzuten zuten horretan. Kilometro gutxiren alde batetik bestera, baina ahozko erregistro eta euskalki banak, eta zeinek berea gidabide. Zenbateraino jarraitu zioten aurreko idazleen estiloari? Peñafloredaren kasuan ez da dudarik, gipuzkera literarioa artean loratzen hasia baitzen, ia belaunaldi bat lehenagotik,² eta batez ere euskarazko eliz oratoriatik, erantsiko nuke orain. Barrutiaren kasuan, inguruneko mintzo-hizkeran ispilua askoz nabariagoa da, idatzizko ereduena baino. Edozela ere, batak eta besteak ezaguna zuten aurreko herri-literatura, kantuz eta agian paper bidez transmititzen zatekeena. Oraintsu agertu eta ezagutzera eman den gabon-kanta bat ere, *Enzun eguizu cer barri dogun* hasiera duena, Barrutia bizi izan zen inguru horretakoa eta bera baino lehenagokoa dateke —xviii. mendearen lehen herenekoa—, eta ez litzateke mira

² Peñafloredaren hizkeraz eta ereduez idatzia dut orain aspaldi *Euskera* aldizkarian (1999, 44. znb., 107-128. orr.).

egitekoa honek ezagutu izana. Izan ere, inprimatu edo ez, holako kopia-papera, endemas gabon girokoak, kantatu egiten baitziren eta buruz ikasi eta irakatsi.

Erljio-oratoria generoko beste adibide bat hurrengo mendekoa. XIX. mendearen hirugarren hamarkadako misiolari idazleetan, Zarauzko Kolegioko Misiolariak nabarmendu ziren —jesulagunak artean Karlos III. erregeak jaurtiki Espainiako erreinutik kanporatu zituelarik— jende aurreko euskarazko predikuan Pirinioz beheitiko euskal lurraldean. Predikari-mintegi horretatik jalgiak dira P. Añibarro, J. M. Zabala, J. K. Etxeberria eta horren ezagun ez diren beste fraile predikarien multzo ugaria. Betiko oztopoaren aurrean zeuden: zer hizkera erabili pulpitan eliztar euskaldunei kristau mezua helarazteko? Larramendi izan zen horretan ere bidea erakutsi zuena. Berak lehenengo, Kardaberazek hurrengo, Mogelek, Añibarrok eta beste batzuek ondoren, ideia beruetsua damaigute: nori bere hizkeran irakatsi behar zaio elizaren dotrina.³ Larramendik bere gramatikan bizkaieraren morfologia-paradigmak ere ematen ditu gipuzkerarenen ondoan, beti ez baina. Eta Hiztegi Hirueledunean (*Diccionario Trilingüe*) ere bizkai eta nafar erako hitz eta hitz-aldaerak lekukotzen saiatzen da, halakoen berri duenean behintzat.⁴ Añibarro misiolariak, bere eginbideak eta hizkuntza-kezka eraginda, handik 70 eta gehiago urtera, zehaztasun askoz handiagoak jokatuko du, ahozko hitzak zein nongo eta norako diren finkatzeko orduan. Hiztegi edo *diccionario* izenik ere ez dio ematen bere lanari, baina bere helburuarekiko izenburu adierazgarria eransten dio: *Voces bascongadas diferenciales de Bizcaya, Guipuzcoa y Navarra*. Hitzak amankomunak direnean *c.* (común) markatzen ditu eta bereziak direnean *b* (bizkaiera), *g* (gipuzkera) eta *n* (nafarrera). Bereizkuntza horren atzean hiztegiak duen erreferentzia nagusia ahozko hizkerak dira dudatzeko.⁵ Eta hiztegiaren helburua are argi eta zuzenago ematen du: *para el uso y alivio de Párrocos y Predicadores bascongados*, dio izenburuan berean. Idazle predikariontzat, idaztea ahozko transmisioaren mendeko bitartekoa besterik ez da: predikari batek beste predikarientzat idazten du, hauek mintzoz helaraz dezaten entzuleen belarrietara. Horretarako baldintza batzuk bete behar ziren: lehe-

³ Jakina da beti horrela jokatzen ez zena. Kardaberaz eta Mendibururen argitalpenek eragin erabakigarria izan zuten predikuan ere, eta bizkaiera eremuetan zein nafarretan gipuzkera predikatzeak halako dotore ospea irabazi zuen eliztar entzuleen artean. Bestela esanda, eredu idatziaren prestigioak ahozko jendeaurreko eremuan ere eragin zuzena izan zuen.

⁴ Ezin da beraz bete-betean sinetsi, kanpora begira, jakitun gatzelauen aurrean euskararen goi ahalbideak erakusteko ondu zuela hiztegia; barrura begira ere jokatu zuen, eta dialekto diferentetako erak erregistratu izana, eliz oratorian erabili beharreko ereduak zuzen loturik dago.

⁵ Haren aurretiko idazle jesulagunen argitarazioak ahaztu gabe, jakina.

nik, hizkera ulergarria izan zedila; beraz, entzuleen hurreko erregistroa erabil zedila, bai hiztegian, bai morfologian eta bai hitz-ebakeran.

Oratoria sakratuaren esparruan, hizkuntza kontuan, euskal eremu guzti-etan berdintsu jokatu dute elizgizonek denboraren joanean. Ez da euskalkia bakarrik, gramatikaren morfologia bakarrik batetik bestera bereizten dena; lexikoa eta gainerako baliabideak ere bai. Idazleok beti edo ia beti jokatzen dute ahozko hizkeraren arrimuan.

Hizkera-barietateen arazoa, euskalki literario amankomun edo erdi amankomunen bidez konponduko da euskal literaturaren mende klasikoetan.

Bizkai-Gipuzkoen mugan bizi izan zen J. A. Mogelek, kasurako, eskolaz ondo hornitua eta idazte bokazio errimeko gizona izanik, euskaraz diharduela hizkuntza barietateen auzia, euskara eremuan hiru dialekto bereiziaz ebartziko du: bizkaiera, gipuzkera eta ‘vasco’ zeritzana, nafar-lapurtera, biak batean. Euskalki-bereizkuntza horrek, tradizio idatzian ere bai hein batean, baina ahozko hizkeran zuen oinarri nagusia. Zergatik darabiltza adizki trinkoak eurrez bizkaieraz diharduenean eta hain bakan gipuzkerazkoan? Lexiko erreper- torioa ere euskalkien arabera banatzen du. Hitzen ebakeran ere berdin joka- tzen du, nahiz berak bizkaierarako proposatua eta Añibarrorena bat ez datozen.

Hizkeren bereizkuntza honetan, euskalkiez urrunago ere heltzen dira tes- tu zaharrak, berariaz dotrina laburren kasuan. xvii. mendetik aurrera hainbat dotrina dira, Bonaparte baino askoz goiztiarragoak, halako herri edo lekurako onduriko euskal dotrinak. Mogelen aldikoa da, esaterako, Asteteren bertsio bat, Busturialdeko bikariarako argitaratua, eta seguruenik idazle markinarrak berberak erredaktatua. Baina aldi zaharragoetatik datoz halako beste hainbat —hiri edo herri baterako berariaz prestatuak izaki, gehientsuenak argitaratzen ere ez zirenak—, bertako elizgizon batek idatziak —hobeto esanda, toki ho- rretako hizkerara itzuli eta egokituak—⁶.

Peru eta Maisu Juanen berba-jardunetan idazleak beren-beregi aurrez aurre jartzen ditu herritar xehe baten ahozko jakituria eta kaletar eskolatuaren ikas-mina. Hizkuntza gaietan nekazari eta olagizonak izango dira bide-erakusle. Herri-altxor horren adigarritzat eskainiko ditu, ez bakarrik errefrau- atsotitzak edo herri-ipuin bat edo beste; herri-koplak ere bai, eta batez ere hiztegi-ondareko bitxiak, bakan edo askorentzat gutxi ezagun diren hitz eta

⁶ Egia esan, tokiko hizkeraren berezitasunak hitzen ebakeratik haruntzago nekez doaz euskal dotrina hauetan, zeren tokirako bertsiook euskarazko besteren baten oinarrituak daude maiz.

esamoduak, bere *Nomenclatura* delakoan. Jakina, Wilhelm Humboldt prusiarrak Alemania aldeko lurretatik zekarren Erromantiko Giroko herri-arima edo popularen jitea ikertzeko ildoaren zurrunbiloan zebilen idazle markinarra ere, batez ere biek Markinan elkar ezagutu zutenetik.

Jose Antonio Uriarte Arrigorriagako semea, frantziskotar predikaria berau ere, eredu bikainenetarikoa dugu herri-literatura eta ahozko baliabideen eskuratze-ahaleginean. Herri-literatura generoetan, herri-poesia edo herri-idazleek eginiko poesia eta kantak bilduko ditu batetik, *Poesia Bascongada* delako hartan. Eta Bonaparte ikertzailearen lankide handi eta sendoenetarikoa bihurtuko da Pirinioz beheharian, bizkaieraren eta baita gipuzkeraren eremuetan batik batik. Hari bidalirik gutunek argi salatzen dute norainoko jakin-minaz ikasten zituen hiztunen ezpainetatik kontzeptu bera adierazteko leku batean edo bestean erabiltzen ziren hitz edo moduak.

Iztueta zaldibiarra eta lehen mendeetako beste askoren izenak ere on egitera datoz ahozko literaturaren hari mehe luze hori. Baina beude hor. Tradizio horrek, euskara hiztun onetatik ikasi behar delakoak, gaurdaino iraun du, eten gutxirekin, eta gaur ere, XXI. mendean sarturik, inoizkorik sendoen dago.

2. Ahozko corpusen ildoak

Era askotariko corpus bilketak ezagutu ditu herri-euskarak, XX. mendetik aurrerako aldiari soilik bagagozkio ere.

2.1. Lexikografia arlokoa izan da ekimenik gehien eta uztarik ugariena eman duena, historiaren aldetik. Mende zaharretarik datorren joera da euskararen kasuan ere, ahozko hitzen zerrendak, nolabait antolatuta, taxutzekoa, eta maiz latin, frantses edo gaztelaniako hitz-zerrendak oinarri direla. Zertan esanik ez da, holakoetan metodologiak berak mugatu izan duela emaitzaren onurakortasuna. Landuchioren hiztegia, kasurako, XVI. mende goiztiarreko emaitza bitxia eta luzea dugu horietariko bat; euskarazko iturriak ahozkoak dira zeharo, baina emaitzak mugatuak; berri-emaileak ere ez ziren agian oparoenak, eta gaztelaniazko kontzeptu-izendapenetara makurtu beharra ere muga latza zen, bestalde. Baina zahar izateak, euskara galdua den eremu bateko hizkera jasotzeak, hitz edo aldaera soil-bakanak hor agertzeak eta batzu-batzuetan esaldi antzeko hitz-segida batzuk ematen diote interes aparta bilduma honi.

XIX. mendearen ondarrera jauzi eginez, Lore Jokoen berpizte aldiak sorra-razi zuen literatura, eta herri-literatura, emaitza guztiekin batera, hutsune bat

utzi zuen agerian: hizkera guztien hiztegi oso baten hutsune premiatsua zegoela, ez Larramendiren ez besteren hiztegiak betetzen ez zuena. Halaxe sortu zen Azkueren ekimena, herri-hizkeren eta literatura idatzien lexiko-katalogazio sistematiko bat emango zuen euskal hiztegia egitekoa: euskaratik abiatua, eta euskaraz sortu eta mamitzen zen hizkuntza-produkzioaren bilgune izango zena. Dialektoz ez ezik, herriz ere markatuak datoz ahozkotik erregistraturiko hitzak.

Berehalako eragina izango zuen literaturan. Adibide hurreko bat: ikusi baino ez dago, beraren lagun hur-hurreko izan zuen Domingo Agirrerren hizkera literarioak zernolako aldakuntza jasaten duen *Auñemendiko Lorea*, hiztegia argitara aurretik onduriko elaberritik, *Kresala* eta *Garoa*, haren ondorik atera zituen bietara. Ia mende oso bateko idazleak janariko ditu, zein gehiago zein gutxiago, Azkueren hiztegiak literatura produkzioarako. Badira idazleak, aldi batez euskalkiz idazten zutenak -Eusebio Erkiaga, Otxolua bizkaitarrak kasurako-, baina batasunaren ondorik morfologia estandarraz egin dutenak gehiago, euren idazkuntza beste euskalkietako hitzez ugaritu dutenak, bereziki kontzeptu berezietarako haietan aurkitzen zutelako hitz adiutua, edo egokitasun fonetikoa eskaintzen zuen hitza urrunagoko hitz batean idorotzen zutelako. Hitz-errepertorio ugaritze horretan harrobi hondargabea izan dute idazleek Azkueren hiztegian, eta bereziki hark ahozkotik jasoriko hitzetan. Hitz lauzkoan adina, poemagintzan ere oihartzun nabaria izan du hiztegi horrek. Lexiko-iturri bakarra ez zen izango seguruenik, baina bai nagusia xx. mendean barrena hurrengorik hurrengorako belaunaldientzat. Eta berriro diot, ahozkotasuna zetzan nagusiki horren guztiorren azpian.

Larramendiren eraginaz alderatzerik ere ez dago. Neurri apalean baino ez zituen jarraitzaile izan hark, bere belaunaldiko eta hurrengoko idazleak, gipuztarrak, bizkaitarrak zein nafarrak. Garai hartako idazle predikariak ondo ohartuak ziren, han, gaztelaniakoen ondoren ageri ziren euskal ordezkioak, asko behintzat, ez zirela hitzunek erabiliak, eta nahiago zuten, Mogelek *Peru Abarka*-ko abadearen ahoz zioenez, nekazariengandik ikasiez baliatu: “*Eta Jangoikuak naiba, emendi aurrera artuko dot ardura andi bat Baserritar ta beste nekezale erderabagakuetati euskeria ondo baño obeto ikasteko*” (PAb 122), aitortzen baitu guztien aurrean.

Iparraldeko hizkerari dagokienez, Pierre Lhanderen hiztegia (1926) dugu, *Basque-Français* delakoa, erreferentzia nagusia. Azkueren ondorik egina, eta hark bezala, idatzizko eta mintzairako iturriak bitzuk aintzat hartu eta baliatu dituen izaki, baditu, metodologiaz aparte, beste balio gehigarri batzuk ere:

Harriet, Iribarren, Foix eta beste eskuizkribuzko lexiko-iturriez baliatu da, eta bere kabuz ere ahozko bilketa ugariak egin.

Hegoaldeari dagokionez, badira Azkuez ostean, eta haren hurrengo be-laualdian, biltzaile handi bi, aparteko aipua merezi dutenak ahozkoaren ar-loari buruz, euren eragina berankorra eta ez hain indartsua gertatu den arren. Placido Muxika eta Justo M. Mokoroaz ari naiz. Euron lana hor dago, bata-rena paper-tomo marduletan, bestearena paperean eta batez ere sarean, bila dabilenaren lagungarri eroso, lehengoan, oraingoan zein gerokoen. Placido Muxikaren hiztegiak —1965eko *gaztelania-euskarakoa*, aurrerago (1973) la-burtuagorik atera zena eta 1981eko *euskara-gaztelaniakoa*— laguntzaile as-koren ahozko bilketez eta ekarriez onduak dira, eta iturrien aipurik ageri ez arren, fidagarriak oro har. Justo Maria Mokoroaren lokuzio-bilduma, *Reper-torio de locuciones* edo *Ortik eta Emendik* delakoa (1990), aspaldiko lana da izatez, edizioa oraintsu samar egina izan arren. Behar baino gutxiagotan aipa-tu edo zitatu izanagatik, idazle, itzultzaile eta irakasle askok jotzen zuten harrobi sakon horretara, batez ere sareko kontsulta bidez; bilaketak errazak baitira euskaratik zein gaztelaniatik. Lexikografo bion lanetan aukera ugari dira kontzeptu edo ideia askoren inguruan, zer nola beste era batera adierazi bilatzen duenarentzat.

Lino Akesoloren eskua dago batik bat *Diccionario Retana de Autoridades del Euskera* (DRAE) delakoaren atzean. Beronen akatsa eta muga, beranduegi argitara izana, eta ez egina izan zen garaian. Osorik argitaratu zenerako *Orotari-ko Euskal Hiztegia* argitaratzen hasia baitzegoen.

Ezin aipatu barik utzi, Gotzon Garate hilberriaren *Erdarakadak* lehenen-go eta *Euskal Atsotitzak* oraintsuagokoa bigarren. Ezta ere amaiturik utzi zuen eta sarean jartzekoa den *Esamolde* bilduma, edo berari sarriago entzuten ge-nion hitzaz, *lokuzioena*.

Tokian tokiko lexiko monografien artean, Toribio Etxebarriaren *Ei-barkoa*, eta Kandido Izagirrearen *Arantzazu-Oinatikoa* eta *Altsasukoa* dira bidea ireki dutenak, gerora hor-hemen, Euskal Herriko bazter askotan egin diren dialektologia ikuspegiko ikerketa eta bildumak egiteko. Eta horietan, grama-tikaz at, ugariak dira hitz-bildumak eta ahozko testu produkzioak.

2.2. Ahozko narrazioak aipatuko nituzke bigarren, arin eta zeharka aipa-tu ere, luze ez jotzeko. Narrazio-biltze tradizioari so eginez, Iparraldea dugu horretan ere aitzindari, kanpo-ikerlariak bide-erakusle direla. J. F. Cerquand frantziar eskola-inspektorea, kasurako, bere “*Legendes et récits populaires du Pays Basque*” bilduman atalik atal hainbat ipuin eta elezahar argitaratu zuena

Bulletin de la Société des Sciences, Lettres et Arts de Pau aldiazkariaren orrietan, 1874-1885 bitartean. W. Webster, bere “Basque legends” (1879) bildumarekin.

Guri gaur dagozkigun egitasmo eta helburuekin estu loturik dagoen narrazio eta kontuen transmisioa ahozkotasanaren bidetik doa gehiago idatzizkotik baino. Eta idatziz transmititu izan zaigunak balio gehiago du oralitatearen ikuspegitik, hitz-jarioaren transkripzio zehatza edo hurbila denean. Rudolf Trebitsch austriarrak 1913an Euskal Herrian gaindi grabatu zituenak dira eredu horretako lehenetarikoak, nahiz grabazio horiek ere ahotik harakoak ez diren; lehenik entzun, aditu batek paperean jaso eta ondoren leku-koak testua irakurri bi minutu barruan; holaxe eginda daude grabazioak. Euskal euskalki ia guztietakoak dira bilduman; guztiak ez balio berekoak, hala ere; banaka batzuk dira gure ustez balio etnografiko edo narratibo dezentea dutenak oralitatearen aldetik.

Mende hasiera horretakoak dira Azkueren biltze-saioak ere, bere *Diccionario* hartarako eduki lexikografikoak biltzen zituen aldi berean, herri-literatura esparruko denetariko gaiak biltzen baitzituen, kantu, ipuin-esaunda, errefrau, sineskera, igarkizun eta bestetariko. Baina *Euskalerraren Yakintza*-ko 2. liburukiko ipuin-testuak irakurri ahala, berehala ohartzen gara entzunetik idatzira dagoen jauzi nabariaz.

Joxe Migel Barandiaran-ek 1921etik aurrera, *Eusko-Folklore* urtekaria eta hileango orrien bidez garatzen duena da hurrengo jauzi kualitatiboa euskal oralitatearen eremuan. Metodologia zehatza aplikatzen die etnografo ataundarrak bere eta laguntzaileen bilketei: den-denean jaso behar dira testuak, ezpainenetik lumara; noiz, non, nori eta nork ere adierazi behar da, eta ezagunak diren gainerako zehaztasunak ere bai. Barandiaranen bilketok, gehienak 20garren hamarkadatik aurrerakoak dira, baina bere sorterrikoak xx. mendehasierakoak asko, beraren ama Maria Aierberi jasoak asko. Ipuin eta esaunden sorta hauek badute beste ezaugarri bat aparta: nekazari giroan eta euskara zaharra gorde izan den eremukoak dira asko: Ataun, Oñati, Kortezubi, Azkoitia... eta gaur euskara galdua den Arabako eremuetan ere jaso ditu lekukotza bikainak. Hala Zigoitiko Etxaguengo emakume bati jaso zion 1919an *Errana ta Amagiarraba* delakoa.⁷

Barandiaranen eta bere itzalpean 1970 aldera sortzen joan ziren Etniker taldeen lanaren bitartez gaurdaino heldu zaigu etnografo handiaren eragina.

⁷ *Eusko-Folklore. Materiales y Cuestionarios*, colección Sara, 7* znb., 465-466. orr.

Kasu adierazgarri bat da *Etniker Bizkaia* aldizkaria, hainbat etnotestoren gordailu.

Herri-ipuina eta bestelako narrazioak aldizkari askotan sakabanaturik ditugu, batez ere 50-60. hamarkadetatik honuntz. *Aranzazu, BAP, Egan, Euskera, FLV, ASJU, Idatz&Mintz* eta zerrenda luze bat. Dialektologiako monografia asko egin dira ondorik gure unibertsitateetan ere, batez ere euskal filologia adarrak abian jarri zirenetik, eta hauetariko askok dituzte erantsirik etnotesto bildumak. Ez dira ahaztekoak, bestalde, gudu aurrean zein ondoren erbesteko ikerlariak eginiko ekarria, bide-urratzaile gertatu baitziren honetan.

Gramatika lanek ahozkoari eskaini dioten arreta dago bestetik. Gaur egun tokian tokiko mintzaireri buruzko hainbeste ikerlan monografiko egiten den honetan, gogora beharrekoak dira, berariaz XX. mendearen lehen aldietatik aurrera ahozko hizkeren gramatika deskribatzeko egin diren saioak. Ez da gure arloa, Schuchardt, Uhlenbeck, Van Eys edo Rollo bezalako kanpo ikertzaileek aspaldisko eman zituzten aitzindari-urratsak hemen gogoratzea, aldiari aldiko metodologiarik aurreratuenak erabiliz. Baina zor dugu, hurbileko gramatikariek, barrurragotik, bertoko hizkerak deskribatzeko edo hizkera-baliabideak bildu eta sailkatzeko egin dituzten ahaleginak. Besteak beste, ekialdeko hizkerari dagokienez, P. Lafitten gramatika ahantzezina (1944), idatz tradizioaz batera ahozkoa erabilirik, nafar-lapurtar eredia finkatu zuena. Sartaldeari dagokienez, R. M. Azkueren gramatika goiztiarrak eta berariaz bere *Morfología Vasca*, neurri handiz ahozkoari atxikia, Seber Altube, bere *Erderismos* eta gainerako sintaxi-lanekin. Aipu apartekoa merezi du, ahozkoari gagozkiola, Pablo Zamarripa sondikarrak, batez ere *Manual del Vascófilo* (1913) delakoaz, eta baita ere, helburu didaktikoz egina den arren, *Gramática Vasca* obraz ere (1915, 1928), edizio ugariak izan zituen liburua, bestalde.

Gudu ondokoen artean, Holmer dugu kanpo-ikerlari goiztiarrenetarikoa. Etxekoen artean, Diego de Alzoren gramatikak berarizko aipua merezi du: *Estudio sobre el Euskera hablado* (Donostia 1961).

3. Ahozko corpusen mailak eta hautaketak

Begi bistakoa da, ahoz gauzatzen diren erregistro guztiak, ez asko, ez direla literaturaren ubidera zuzentzekoak. Ahozko produkzioa eta idatzizkoa ez baitira bat, eta zeinek bere bideak edo joerak baititu hitzak, esapideak, estilobaliabideak edo sintaxia hautatzerakoan.

Baina egia da halaber, ahozko emaitzen zimendu segurua barik, prosa edo poesia aberatsik ontzea nekeza dela; hura duela ongarria eta sendaria, hartaz janaritzen dela. Hartatik zer hautatu eta zer bazter utzi, horra idazlearen egitekoa; horretan du maisutasuna erakusten idazle on batek.

Behin baino sarriago esanak gara, gu eta beste, ahozko corpusak euren soilean gordinegiak ohi direla prosa literarioa bere horretan isurtzeko, ahozkotik jasoriko baliabideak literaturgintzarako emankor bihur daitezzen. Baina hori da helburua funtsean: ahozko hizkerak eutsi dien eta artean hitz lauzko barrutira urri bideratu diren baliabideok idatzizko ereduan txerta daitezzen, eta azken finean, hizkera literarioa freskatu edo aberastuko duten emari bihur daitezzen, alderdi formalean edo semantikoan.

Idazle arruntak —zentzu hertsian, sortzaile ez denak— bere kabuz nekez jotzen du etnotesto, hitz edo esaera bilduma eta halako lan gordinetara, nahiz teoriarantz hartu hura datekeela hizkera literarioarako humus aproposa.

Herri-hizkera baliabideen garraio hori errazago gertatzen da erdibideko testu eta idatziak direnean. Ereduek gisa har daitezke *Auspoa* bildumako hainbat libururik eta horien taiuko beste batzuk egin duten zubi-lana. Edota zenbait idazlek, herri-ipuinak, lehenik ahoz jasorikoak —aleman hizkuntzarako behinola Grimm anaiek egin zuten antzera— idatzirako egokitzeko egin duten ahalegina.

4. Ahozkoaren estilo ezaugarri batzuk

Ahozko kontaezan badira zenbait estilo-ezaugarri, idatzizkoan bakanago ageri ohi direnak, eta neurri aplikaturik, dagokion hizkera-erregistroan guztiz gomendagarri bihur daitezkeenak. Ahozko baliabideon ezagutza zehatzak asko lagun diezaioke idazleari bere testuari bizia eta kolorea ematen. Ezagunak diren bat edo beste aipatuko ditut:

— *Elipsiaz* abiatuko gara: ahozkoan maiz gertatzen den ezaugarria, errepikak ere ohi diren bezala. Ahozkotik idatzirako jauzian estilo-aldeak nabarmenak dira puntu honetan, batez ere kontaera generoan, baina elkarrizketan ere ez gutxi. Hitzunaren joera ahozkoan, komunikazio-eraren beraren izatez, beti da elipsirakoa —hitzun batzuetan beste batzuetan baino gehiago, dena dela—, gauzak labur esatera, gainerako zehaztasunak kontestuak berak argitzen baititu.

Gramatika-puntu bat hautatu behar eta, aditz perifrasieta ohiko den elipsi-eredua aipatuko dut; laguntzailearen galera, hain zuzen, ipuin bitako txatalak bitarteko:

(1) “Gero, laiño bat Usabe gaiñen agertu ementzan eta apeza konjurua eitten *hasi*”. (Mari Muruko. *Eusko-Folklore*, II, 762).

(2) “Atxarte-errotako etxeoandrie uretan juen ei zan erre kara eta errekan, harri baten gaiñian, orrazi bat topau ei eban eta etxera *eruen*”. (*Eusko Folklore*, II, 752).

(3) “Batto arrunt abilla omentzen, eta bere xapela mintza-azten” (*Eusko Folklore*, II, 768).

(4) “In omentzuten Atarrabioren errana. Bela *etorri*, inguru-inguruka *ibili*, baina *ez ereman*.” (*Eusko Folklore*, II, 772).

Lehenengoan, lehen perpausa aditz laguntzaileaz markatu dena, bigarre-nean ez da egin. Bigarreanean, hiru perpausa segidan dituen horretan, lehen bietan aditz perifrasiak osorik datoz, baina hirugarrena aditz partizipio soilaz markatzen da. Narrazioaren ekintza-katean, elipsi bidez kontaera arindu eta adierazkortasun pitin batez hornitu ere egiten da, gramatika arauzkoa erabiliz gainera. Ezezka ere maiz jalgitzen dira holako segidak:

(5) Nik deiadar eta deiadar eta inork erantzuten ez!

(6) Jendearen ondo-ondotik igaro eta inork ikusi ez, ostera!

Idatzian, testu-generoen arabera, gehiago edo gutxiago jokatuko du idazleak elipsiaz. Baina ezin ukatu, narratiban —sorkuntzazkoa edo itzulia den berdin dio— baliabide guztiz aproposa gerta daitekeela, eta idazle batzuek maisukiro erabiltzen jakin dutena.⁸

— *Errepika*, aurrekoaren kontrakoa dugu beste baliabide ohiko bat.

“Irea ebagi behar; *irea ebagi eta irea ebagi*, zenbat besartekada!” (Ira-ebatea lehenago. Santi Elejalde)

⁸ Ezaugarri hau ugari darabilten itzulpen-eredu bikain bi datozkit burura: bata, Justo M. Morokoak onduriko A. Campionen ipuin baten euskal bertsoa: *Erraondoko azken danielinteroa*; bestea, Orixe. Esaterako, *Urte guziko Meza-Bezperak* bertsiokoa.

Baina errepika gehiegizkoak gertatu ohi dira maizegi ahozko jarioan, idatzian saihestu beharrekoak. Hala, aditza perpausaren hasiera antzean ageri bada, ohartzeko azkenean ere aipatzea, eta beste horretariko asko.

— *Kontrajarpenaz* baliatzea. Sarritan, zerbait adierazkortasunez espresatu nahi denean, horren kontrakoa ukatzera jotzen du hiztunak. Zerbait ezezka adierazten da batzuetan kontrako zentzuari indar emateko, edo baiezkako perpaus markatuak erabiltzen dira alderantzizko mezua enfasiaraz adierazteko. Holako egiturak ohikoak dira mintzaeran, ez hainbeste idatziz, ezta dialogoetan ere, baina idatzirako ere baliagarri izan daitezke, batez ere literatur hizkeran, mezuren bat kolorez eta adierazkortasunez aditzera eman nahi denean. Hala:

(1) “Liburuak ere eroan banitu, *asko txarrago ez!*”

Hau da, “askoz hobe izango zen”. Edo:

(2) “*Hori baino hoberik bazegok!*”

Hau da, “hori ez da horren ona”.

— *Graduazio-markak* ugariak dira euskaraz ere, bai ahozko, bai idatzizko tradizioan: *guztiz*, *arras*, *txit...* eta ooren nagusi *oso* gaur egun. Baina mintzairan indarrean eta bizi dirauen egitura bat bada, bestalde idatziz ere ondo dokumentatua, genero batzuetan bereziki eta azken mende betekoetan areago nahiko hots eta sona duena. Errepika egituraz ari naiz, batez ere adjektibo (*txiki-txikia*), aditzondo (*geldiro-geldiro*, *kontuz-kontuz*) sarri ageri ohi dena. Errepika-egiturak idatziz, inola ere ez dira ahozkoan bezain ugariak

Iterazio-egituretan gutxiago antzematen da idatziz *ere/be* juntagailuz loturikoa. Hala, *antzina ere antzinakoa*, ‘aspaldi-aspaldikoa’ dela adierazteko:

“entzunda, entzunda ba zeozer bai, baia *antzina be antxinakoa*” (*Gorbeia* 300)

— Ezaguna dugu *-xe* atzizki adierazkorra, kategoria batzuekin *-txo* atzizkiaren balio gutxitzaile bertsua duena (*txikixea*, *gertuxe*) edo izan duena⁹; baina intentsitate-marka legez hedatuago eta ezagunago duguna, kategoria pronominalekin berariaz: erakusleekin, (*hauxe*), adberbioekin (*oraintxe*, *orduantxe*,

⁹ Ezagunak dira sartalde-euskarako testu zaharretan ere beronen lekukotasunak, hala nola Lazarraganan, berariaz izen kategoriek: *goitixeago* (15r), *berbaxeok* (21v), *gauzaxe batek* (23v), *urtexe onau* (27r), *presentexeak* (28r), *dakidantxeau* (23v).

hementxe), eta pertsona-izenordainekin ere (*nihaurxe*, *nixeau*), mintzairan espreski, idatzizko testuek horretarako argi gehiegi ematen ez badigute ere. Hala ere Lazarragarenean oraintsu irakurri ahal izan ditugu honetarikoak:

“ene laztana solas daigun / *geurtxeok* biok bakarrik” (21r), “Oi, arrezkero Jaun zerukoak / *bertxeak* daki bakarrik” (20v), “Oi, bada bere bizi oi nax / (...) / ziudadetxo txikir batean, / *neurtxeau* bakar-bakarrik” (24r).

Baina Gipuzkoako esatari ezagun batek galdetzen zidan, Ataungo zahar bati kontu-kontari entzun ziola-eta, ea zer den *nitxeonek*. Ezin asmatu gizonak, artean irakurriak zituenen arabera hitz horren sekretua. *Neronek* entzutera eta irakurtzera ohitua bai, baina *nitxeonek* edo *neurtxeonek* eraokak, ez ostera.

— Asertzioaren neurgarriak

Perpauk edo esaldiaren egitasun-neurria markatzen duten adberbio edo perpauk-marken artean, guztiz zabal dabilta zenbait, ahoz nahiz idatziz. Hala: *noski*, *alegia*, *hain zuzen*, *agian*, *behar bada*, *nonbait* edo beste halatsukoak.

Badira, baina, beste batzuk, ahoz hizkuntza-eremu jakinetan zabal ibili arren, idatziz mehatz azaltzen direnak. Sartaldeko euskaratik abiatuta, haietarikoak dira *antza*, *ameneko*, *aurki* sartalde-hizkeretan, edota *dirudienez*, *agidanez*, *bide* bezalakoak erdi edo ekialde-hizkeretan. Haietarikoa dugu ere *itxurea* —batuz *itxura*—, idatziz bizkaieraz ere nekez irakurtzen dena, nahiz ahoz zabal dabilen marka izan. Hala:

“Bai, Anbototik Oizera joaten ei zan (...) beti sorginori. Gabaz edo, *itxurea*.” (Berriz, 581).

Badira asertzio mailako maileguzko markak ere, mintzairan garatu direnak eta idatziz arrakasta laburra edo harean eduki ez dutenak. Bat edo beste aipatzearren, *akaso* edo *igual*, askok uste baino hedatuago dabiltzanak hegoaldeko eremu zabaletan, ‘behar bada, agian’ sinonimoen eginkizun beretsurako.

— *Lokailu* eta bestelako testu-antolatzaile deritzegun horien aukera zabaletan ere, batzuk-batzuk gramatika-literaturetan usu ageri dira, halako lehenespen antzekoa dute esangura jakinetarako. Baina hizkera literarioak behar duen dibertsitateaz jokatu nahi duenak herri-hizkeraren harrobi agorrezin horretara jo beharko du, hizkerari freskotasuna eransteko. Kasu bat: *adibidez* dugu euskara landuan nagusi, erdaretan ‘por ejemplo, par exemple, for example, zum Beispiel’ diren antzera. Baina ezagunak dira, hala ere, berariaz ahoz, *kasurako*, *berbarako*, *konparaziotako* eta beste gehiago.

— *Denbora-marketan* ere, hau da, denbora-neurgarritzat erabilien artean, eman dezagun *bat-batekotasuna* adierazteko, badira adberbio-aditzondoetan mordoa. Mailegu zahar edo aspaldikoen artean hauta dezagun *agudo* (*l aguro*). Adberbio gisa sendo eta aspalditik lekukotua tradizio idatzian (*OEHI*, 316), baina gaur egungo literaturan ahantzixea, hala ere, duen mailegu-sundaren erruz seguruenik.

5. *Gramatika* eremuko zenbait baliabide

— *Mugatzaile hurbilen* erabilera da, sartalde-hizkeretan batik bat, baina erdi eta ekialderuntz ere maiz, mintzaira idatzizko estilotik dexente bereizten den puntu ageri bat. Narrazio erduetan, errepika kontestuetan markatzen dira izen-sintagmak maiz mugatzaile hurbilaz. Ahoz jasoriko kontaera edo narrazioak ditugu testurik adiutuenak, mugatzaile hurbilen inguruneak finkatzeke, idatzizkoetan maiz beste gramatika bat erabili izan baita, baita sartaldeko tradizioan berean ere. Begira Mendaron bilduriko sorgin ipuin ezagunaren bertsioan zenbat honetariko ageri diren:

“Ta tximinixatik bera etortze omen zitzakon bat. Ta estaki zer da baki ser da, berriketan jardute omen tzion andri *orri*, an bean, tximinixan bera sartzen zan arek. (...) Jarri da gison *oi*, berriz sea koruetan da ola, ta! atzo *ori* e etorri da berris tximiniko suluan bera (...) jo deu eskoba kertenakin, ta jo... kertenakin, jo deu da, eskuturrian jo, ta eskuturra ausi sorgin *orri*. Bixamonian andra *ori* azaldu zala eskuturra ausitxa”. (*EHHA*. Antologia 53).

— *Deklinabide* eremuko erabileren bat hautatzeko, inesibo mugagabera mugatuko gara. Ezaguna da *-tan* atzizki mugagabearen balio diferentean artean bat, guztiz ohikoa, ‘non sarturik, non murgildurik, zein giroren barruan’ dagoen norbait/zerbait adieraztea dela. Hala erabili ohi dira eguraldiaren eremuan *hotzetan ibili*, *epeletan egon*, *ohean berotan egon*, *freskotan*, *euritan*, *hai-zetan*, *uretlan...* eta horien ildokoak. Bide berekoa den *gatzetan* ohi darabilte arrantza-girokoek, gatz. ‘(en) *salazón*’ termino tekniko adierazteko. Tradizio idatzian bakan ageri den arren, ahoz ohikoa dugu; halanda ze, gomendagarria.

— *Postposizio* kategoriako eredu bat edo bi emango ditugu ahozkotik aterata, idatziz bakan erabiliak diren marken adigarritzat. Noranzkoa adierazteko, ezagunak dira euskarari, batez ere idatzian, *-an zehar*, *-an barna*, *-an gaindi*, *-tik aitzinalatxina* legezko markak. Horien aldamenean, bada *-an barruna*, batez ere gipuzkeran ezaguna dena, eta tradizio idatzian ere ondo lekukotua,

nahiz eredu batu modernoan jera handirik egin ez beroni idazleek. Herri-hizkeran, aldiz, bizi-bizi dirau zenbait eskualdetan, besteak beste Getarian. Itsasoko arrain aldrak nondik norantz mugitzen diren azaltzean behin eta berriro darabil lekukoak:

Konpa(ra)zio (b)ateko antxua. Antxua sortzen da amen (...) nordestetik barru(r)a sartzen da antxua ta juten da oestian *barruna*. Da atunak eta oiek alrebes, oestetik etortzen di(r)a eta juten di(r)a estian *barruna*, ge(r)o nortian *barruna*.¹⁰

Gure iritzi apalean, estandarreko testuetan ere duen baino bultzada handiagoa behar luke.

— *Aditza* dela eta denbora-aspektuen puntuari helduko diogu soilik. Aditzaren aspektuak ekintza-prozesuaren egoeraz edo garapenaz xehetasun bereziak hartzen ditu, darabiltzagun egitura diferenteen arabera. Eta ahozko jarriotan, horretan ere, idatzizkoan bakanago irakurtzen diren aditz-egiturak entzuten dira; idatzizko eredu estuagoetatik urruntzen den dibertsitatea ageri du maiz, kontaearen harian zertzelada edo matiz bereziak espresatzeko.

a) Kontalariak, esaterako, bere lehenagoko esperientzia jasoa gogora ekartzeko, behin baino gehiagotan entzunak edo ikusiak dituen gertaerak orainera ekarteko, sarri jotzen du honakoetara:

Nik *entzunda daukat* neska sorginduren bati juizioa egin eutsiela antxina han Salamancan edo.

Gauza jakina da *entzunda daukat* perifrasiak -edo ekialderagoko *entzuna dut*- aspektu markatuagoa ematen digula lehenean jazotakoari buruz, *entzun dut* eredu neutroaren ondoan. Laguntzaile iragangaitzaz ere berdin: *han egonda nago* ereduaren arabera. Txerria mazoaz jota hiltzeko ohitura ere bazela, honela kontatzen du Zestoako kontalari batek:

Ge(r)o mazeta hor gaiñian jota (e)re batzuk hiltze'zittuen. Jo ta kordia kendu. Neu (e)re *hilda n(ag)*.¹¹

b) Iraganeko ohiturazko gertaerak espresatzeko *-ko* gerokoaz baliatzea ere ohikoa da. Erramu egunaren inguruko ohiturez diharduela lehenagoko oroitzapenak honetara dakartza gogora lekuko berak:

¹⁰ Getaria: Arrainen mogimenduak. *EHHA. Antologia*, 62.

¹¹ Zestoa. Txerri-hiltzeko moduak. *EHHA. Antologia*, 60.

“Gure atte(k) beti Santa Krutzetan *ingo zittun* gurutzek ta soro bakoitzen makillekin bat *jartze zun*, urte guzi(r)ako”.

— *Mende-perpausen* arloan berdintsu: idatziz nekezago onartzen diren marka eta egitura asko testu mintzatuan aise erabiltzen dira, batez ere idazleak mailegu edo kalko kutsua hartzen dieten haiek, edozein mende-perpau mota dela ere.

Baina hizkuntza barruan garatu diren egiturak ere badira, eremu semantiko espeziifikoak betetzeko hizkera batzuetan sortu eta hedatu diren markak, baina beste batzuetan ez. Perpau konpletiboetan *-(e)la* marka orokorraren aldamenen garatu diren marka bereziagoena da diogunaren adigarri ona. Mendeko konpletibo tipo batzuetan *-(e)na* atzikia erabiltzea *-(e)la* erabili ordez fenomeno ezaguna da euskararen sartaldeko hizkeretan, batik bat bizkaieran, baina gipuzkeran ere oso barrena sartzen dena, eta nafar hizkera batzuetan ere ezaguna. Hara Urretxuko hizkeran, Santa Kruz apaizaren gaineko kontaeraren lekukoak esana:

Santa Kruz abadia Ipiñarrietan ixkuta. (...) Ba emen tzekien an ixtau *zana*, ta jun di(r)a.¹²

6. *Lexiko-semantika* alderdira jotzen badugu, hizkuntzaren beste esparru batzuetan baino aiseago eta gehixeago idoroko ditugu, idatzizko corpusetan bakan erregistratzen diren kontzeptuak eta hitz-formak. Besteak beste, gure literatura idatziak jorratu dituen eremu semantikoak askoz murriztagoak direlako, euskal hiztunen bizimoduari, historiari eta pentsaera-munduari dagozkienak baino.

Hitzen morfologiari gagozkiola, hitz-erroak eurak edo hitz-erro ezagunen eratorriak edo erro ezagun biren konbinazio edo konposaketaz eraikiak, “berri” edo ezezagun samar gertatzen zaizkigu maiz, idatzizkoan erreferentzia garbirik ez dutelako edo ez dutelakoan —lokuzioen eremuan hainbat ugariagoa da fenomeno hau—. Lexiko “berritasunok” agian artean jasorik daude hiztegi, glosario edo herriren bateko corpusen baten —guretan ia beti kontesturik gabe edo urriaz—, baina literatura mailan lekukotasunik ez edo bakan izan dutelako, ez dute itzalik egiten hizkuntza idatziari buruz. Zorionez, gure lexikografoei esker —hitzen bilketa izan baita tradizioz gure euskarafiloen afizio oparoenatarikoa—, idatziaz haratagoko hitz (euren aldaerekin) eta esapide

¹² Urretxu: Santa Kruz apaiza ihesi. *EHHA. Antologia*, 56.

asko jaso izan dira, eta ahalegin horri esker ageri dira OEH/DGV delakoan jasorik. Besteak beste, Mogel, Añibarro, J. Mateo Zabala, Izueta eta artera-gokoetara joan barik, hurbilagokoa dugu horretan gure erreferente nagusia: goian aipatuak diren R. M. Azkue —hiztegia eta *EY* bilduma ezinbesteko erreferentziak ditugu alde horretatik—, M. Harriet, P. Lhande, Placido Muxika, Justo M. Mokoroa eta Lino Akesolo, besteak beste, Euskaltzaindiaren ardurapean eta Mitxelenaren aitzindaritzaz abiatu zen orotariko hiztegi horretara arte.¹³

Literatura idatziak bere bidea egin du mendez mende eta belaunik belau, jakina denez, eta emeki-emeki idatziz erabili beharreko lexikoa ere hautatzen eta finkatzen joan da, errio, ibai eta erreketako urek harri koskorrak zein bere tankeran lantzen eta biribiltzen dituzten antzera.

Hitzen eta aldaeren hautatze-prozesu horretan, joera nagusia beti da tradizio idatzirik indartsuena edo aberatsena duten eremuetako erak nagusi irte-tea; hau da, haietako hitz-aukerak hobestea beste sinonimo batzuen ondoan, edo haietako aldaerak beste batzuetakoen aldean. Hala gertatu da gurean ere idazte eta literatura prozesuan. Baina alderdi makur bat ere badu joera horrek: galtzaile gertatzen direla, literatura apalagoa, ahulagoa izan duten eremuk. Labur esanda, erdiguneak atera dira irabazle eta bazterrak galtzaile. Liburu eta aldizkarien sorgune edo bilgune izan diren tokietako hizkerek garatze osasuntsuagoa ezagutu dute gainerako eremuen ondoan. Soro bazterretako artolanda-erak ere endekatuagoak izaten baitira. Prozesu hori beti ez doa hiztun kopuruari atxikirik, prestigioari eta erabilera idatziaren bidez finkatu den tradizioari eta ohiturari baino.

Ahozko hizkeren ondareaz baliatzea diogunean, gure asmoa ez da inolaz ere joera unibertsal horri kontra erasotzea, ez galga jartzea. Bai ordea, nolabait elementu osagarriez aberastea, edo freskatzeko bideak irekitzea, hala gerta da-din; hizkera literarioari kolore eta konnotazio ugariagoak ematen bidea erraztu. Eta hori lexikografia alorrean.

Gorago esan bezala, euskal lexikografia-lanak, hasieratik gehiago, askoz obenduago egon dira ahozko erregistroak jasotzera, idatzizkoetan arakatzera baino, orohar; joera horrek ere bere akatsak baititu. Denbora oso moderno-etan jo da idatzizko corpusen bilketa sistematikoak egitera, ooren buru delako *OEH* dugularik.

¹³ Zerrenda hau, azken hamarkadetan, asko luza daiteke, dialektologia ikerketen kariatara herri anitzetan egin diren monografia-lanetara etorritz gero.

Ahozkoaren bidez jasoak izan dira, aldiz, ahalegin nagusiak, eta Larramendiz gerokoak bereziki; are gehiago Pirinioz beheitikoak.¹⁴ Azkuek halako oreka antzeko bat bilatuko du bere *Dicc* nagusian, baina berezko jidak eroango du ahozkoari ardura handiagoa hartzera, alderdi horretatik hutsune handiagoa eta zer bildu gehiago ikusten zuelako, dudatzeke. Haren ondorik jardun duten hiztegi-gileek ere ahozko lexiko-ondareari buruz gehiago saiatu izan dira. Batetik tradizio bat egina zelako ildo horretan, eta bestetik, hor idoro uste zuten altxorra testu idatzietan aurki zitekeenik uste ez zutelako.¹⁵ Azken hamarkada hauetan lan monografiko asko egin dira lurralde osoko bazter euskaldunetan, batez ere Euskal Filologia adarreko ikertzaile eta ikasleen aldetik, ondorenez aurretiko corpusak ugaritzera material asko bildu delarik, besteak beste lexikografia eremuan.¹⁶

Ahazkotasunaren iturria, izan ere, agortzen ez da erraza eta usterik gutxien denean beti ageri da, han ez bada hemen, ezusteko hitzik edo lokuziorik. Hitz-sarrera berriak, aurreko lexikografia-zerrendetan lekukotu gabekoak, ez dira agian ugariegiak izango, baldin mailegu-hitzak ez bada, eta batez ere aurrerakuntza modernoei atxikiak; maileguak beti susmopean egon baitira gure lexikografoentzat eta maiz saihetsean utzi dira. Baina ahozkoaren emaria urrunagora ailegatzen da; eta zenbat eta aztergai zehatzagoetara jo, hainbat eta ugariagoa da: lanbideak direla, jolasak, erritoak, usadioak... eta beste. Hitza bera ezaguna eta finkatua izan arren, aldaeraren bat azalduko da. Hitz horren esangura finkatuak hau eta bestea badira, hirugarren bat azalduko da, artean modu sistematzatuz jaso gabea. Eta urruntxoago bagoaz, hitz horrekin hiztunek eginiko eraikuntza finkoak, kolokazioak, lokuzioak... mundu ezezagunago batera eroango gaituzte oraindik. Lexikografiaren eremua —hain bizi izaki berez eta hiztun gizarteen ezpain mugikorretan— nekez eman daiteke agortutzat, beti hil ez bada hizkuntza bat; beti erregistratuko da berria edo artean egin gabea han edo hor.

Non dira bete edo hornitu beharreko hutsuneak, eta ahozkoak zertan lagun dezake horretan?

6.1. *Hitz eta morfologia* bakanak azaleratzen dira noizbehinka mintzaira bidez, eta batzuetan kontzeptu bana-banakoien adierazle direnak. *Pitz/pitza*

¹⁴ J. A. Mogel, P. A. Añibarro eta J. M. Zabala bizkaitarrak horren lekuko garbiak ditugu, esaterako, ez bakarrik euren biltze-jardunean, baita metodologia horren argudiatzean ere.

¹⁵ xx. mendean, Azkuek gero, etengabeko emaria dugu ahozkoan oinarritua: Lhande, Placido Muxika, Diccionario Retana, Justo M^a Mokoroa... eta tokian tokiko bilduma monografikoetan, Toribio Etxebarria (Eibar), Candido Izagirre (Arantzazu-Oñati) eta ondoren etorriko den lerrokada luzea.

¹⁶ Hauen zerrenda zehatzik egiteko asmorik ez dugu, nolana ere luzea irtengo bailuke.

hitzaren kasua da bat. *Pitzatu* aditza ezaguna den moduan, *pitz(a)* gutxi ageri da idatzizko corpusetan. Ahoz Ataunen aspaldi jaso zuen Gerard Bähr-ek Ataunen, Barandiarani bidali zion esaunda baten barruan:

“Eta esan zion txara (txaga) bat atarín zutik sartzêko, eta aren punta *pitzau* eta orrazik paratzeko. Eta zetorrenên esateko txaran puntan an zerela ta artu zitzela. Ta ala eaman zittûn. Txara ure bi *pitz* einda utzi emen zôn.” (*Eusko-Folklore. Mat. y Cuest.*, II, 828).

6.2. Hitzik ezagunenekin ere gertatzen da inoiz, euren inguruko esapide eta esanahiak, ahoz aitorten osoa dutenak, idatziz aitorten eskasarekin izatea. Adibidetzat jo dezagun *meza* hitza. *Meza* hitzaren ildoko konposatu, lokuzio eta eratorriak ugariak dira (cf. *OEH*, XII, 297-304). Hala ere, *mezadun* eta *mezadun izan* —bata eratorria, bestea aditz lokuzioa— hitzez informazio urria damaigute corpus-hiztegiek. Azkuek Plentzian jasoriko adiera, zehatzena: “asistir a funerales y encargar misa pro difunto” (*EY*, III, 294). Ildo beretik, *EHHA. Antologia*-n biltzen den Azkoitiko etnotestu batek argibide ugariagoak eskaintzen ditu *mezadun izan* aditz lokuzioaz; ez bakarrik esangura zehatzaz, baita hiletan inguruko errituez.

“Emen oitura aundixe zan (...) entierue da gaur. Zeiñena? Alakona, ta *mezadun gaure*. (...) *Mezadun gaure*. Mezia emateko obligazixuakin. (...) Da meza dirue ematen zeben ba, jeneral, familiartekuk, ‘*mezadun gatxebek* eta! Jun in berko diau entierroa, *mezadun gatxebek* eta!’, obligazixo bat bezala zan aure.” (*EHHA. O.E.M. Antologia*, 55. orr.).

6.3. *Hitz elkarketaren* eremua da ahozkotik idatzirakoan emankor gerta daitekeen bat. Hitz-elkarketa bideak, euskaraz ere, joera horretako beste hizkuntza batzuetan bezala, nekez agortzen dira, hizkuntza bera osasuntsu den neurrian behintzat. Eta gogoan ditudanak ez dira inola ere hitz elkartu finko ihartu edo erdi ihartuak. Lexikalizazio osora heldu gabeko *elkarketa libre* horiez ari naiz, hiztunak —berezko euskara sendoa duen hiztuna, esan nahi dut— hitz jarioan, berba ekarrian modu automatikoz sortzen dituen horiez ari naiz. Hitzaren elkarketarako sistema, batez ere izen, aditza eta partizipioena, indarrean eta bizirik dago. Ahozkoan gehiago, agian, hiztun onen kasuan: hizkera emankorra gertatzen da, sistemak zilegi egiten duen neurrian, marka gabeko izen kateen sorkuntzan. Eta emankor izate horri sorkuntza ahalmena gehituko nioke nik. Analogiarako joerak eta mundu figuratiboak paper trinkoa jokatzen dute honetan. Ondorioz, ahozko erregistroak laguntza estimagarria eman dezake holakoak bilatu eta katalogatzen, hiztegi corpusetara eroanez.

— /Izen + Izen/ egitura dugu emankorrena duda barik. Batzuetan konposatuok eginagoak dira, finkoagoak; beste batzuetan kontestuaren arabera hitzunik automatikoki sortzen dakizkienak. Eguraldiaren eremukoa dugu ondokoa: *harri-erauntsia hasi* “comenzar a caer el pedrisco” (*Eusko Folklore* II, 762), itxura baten konposatu guztiz finkatua.

Laminen mundu mitologikoaren erakusgarri den esaunda baten, ondoko mehatxuzko errezitatu pareatua zuzentzen dio, maingire edo izara ostu dion Gorozikako Munagurengo etxeoandreaki: *Munagurengo atso banderea / Ekarri egidana nire ondra-izarea*. Formula egina herri-literaturan, atso hitz baten antzera, esan dezagun. Lehen elkarketa-eredua /Izen + Adjektibo/ ereduokoa dugu: *atso bandera*, hitz gaitzesgarri biz osatua: *atso* deitzen dio etxeoandreaki eta *bandera* kalifikatiboa eransten dio. Gaur ere ahozkoan, emakume fardel oldarkorrei buruzko ezaguna den formula. Bigarren elkarketa-eredua /Izen + Izen/ ereduokoa, finkatua da: *ondra-izara*. Beste leku batzuetan *anda-izara* edo beste aukeraren bat duena; beti ere konposizioaren lehen osagaia aldatzen dela.

— Har dezagun *zorri* hitza, lehen adieran gazt. ‘piojo’ zomorro tipia adierazten duen izena, baina kualitate hedapenez adjektibo legez ere adierazkortasun handiko esangura-eremua duena —beste abere-piztia asko ere giza-kualitate adierazle izaten baitira hizkera arruntean—¹⁷ ‘tipi, erkin, ezerez’ zentzua adierazteko, eta gaitzespen kutsu batez gainera. *Zorri hil biztuak* diren antzera, *aberats zorriak* ere sortu dira, eta bide beretsutik *ume zorri bat* edo *etxe zorri bat* garatu ditu. Ildo beretik garatu dira /Iz + Adj/ egiturako konposatuak, hala nola *lapazorri* (E.Barrutia, J. Enzunza 142), itsasaldean ‘lapa txikia’, beste konposatu askoz ezagunago batzuekin batera.

— Elkarketa-eredu berekoak ditugu /aho + adj/ eraikuntzak ere, herri-hizkeran katenbegi batzuk badituena: *ahozabal* eta *ahobero* (gehiegi, neurritz gora hitz egiten duena), *ahozikin* eta *ahobeltz* (gaizki, deungaro hitz egiten duena) —bigarrena ez hain hedatua—, *ahozuri* (lausengari) eta beste. *Aho* hitz berorrez eihoriko hitz-segida dugu *ahotik hortzera (esan)* (*Sakana*, 322) ere, *hitzetik hortzera* lokuzioaren anaia bikia —hau askoz ere finkatuago bada ere idatziz—.

— Bada beste eredu bat, *ate-joka* edo *gari-jotzen* erakoena, /Izen + Aditzizen/ egiturakoa, idatziz baino askoz emankorrago gertatzen dena maila min-

¹⁷ Animalien esparruko bat edo beste aipatzeko: *azeria / lukia* (maltzurra), *otsoa* (jatuna), *txakurra* (gaizto traidorea), *satorra* (azpitik jokatzen duena), *sapoa*, *txerria*, *lupua*, *ganbelua*, *arraina*...

tzatuan, hiltun onen erreperitorioa biltzen badugu. Idatziz beti ere gramatika purura jotzen baitugu, *garia jotzen* formulatzera egiten dute idazlerik gehienek, hiltunek berezkoa duten labur beharrezko joerak konposizio-egituretara duten jitarene kontra. Barandiaranek jasoriko lamina-ipuinetarik jaso ditugu bi:

(a) “Gabien lamiña etorri *ate-joten*, eta andriek bildurrez onien emon bier bentanatik” (Eusko Folklore II, 748).

(b) “Usansoloko auzo baten ebiltzen ei zien lamiñak *erropa garbituten* kante-tan” (Eusko Folklore II, 746).

— Hiru osagaiko elkarketak ere maiz antzematen dira ahozkoan, idatziz erlazio-markak erabiltzeko joera dugun kasuetan ere. Erreparatu, adibidez, Ezkio-Itsasoko lekuko bati etxegintzaren inguruan jasoriko honi:

“argiñek a(r)i di(r)en denboran, beste a(r)otz mordo bat eoten da etxe ortaako egurre, zurajerie, egurre preparatzen, eta baita itzaiek e(re) *egur trongo karreoan*”. (Ezkio-Itsaso. Etxegintza. EHHA. Antologia, 59).

6.4. *Erorpen* eta *Postposizioen* eremuan ere badira erabilera ohargarriak. Euskara bezalako hizkuntza atzekarrietan baliakizun emankorra ohi da atzizki eta postposizio bidezko hitz-sorkuntza, eta arlo horretantxe gertatzen dira hizkera mailan, idatzian mehatz ageri diren edota idatzira nekezago erroten diren egiturak. Hiltunak, batez ere analogiak eskaintzen dituen errazbideak baliatuz, malgutasunez eta irudimenez jokatzen daki maiz, hizkuntzari ustiakuntza berriak irekitzeko.

6.4.1. Aurizki gutxi dugun arren, *ez* negazio-marka eta *des-* mailegu-aurrizkia ditugu euskarazko hitz-sorkuntzan ekarkor azaldu direnak, nahiz literatura-corpusetan emankortasun horrek ber neurririk hartu ez.

Des- horren zerrendan, liteatura-isladarik ez edo gutxi duten eratorrien artean aipa daitezke *deskonortatu*¹⁸, *despuztu*¹⁹ edo *destaiuan*²⁰. Eta *ez-*

¹⁸ Añibarrok (*Voces*) “quedar sin sentido” esamoldearen euskarazko ordezkoen artean *deskonortadu* jaso zuen, *konorte bago geratu* eta antzekoekin batera, eta gaur egun ere ezaguna da gutxienez *deskonortauta egon*, “estar destemplado” zentzu figuratiboaz. (Morgan hala darabilgu, gutxienez).

¹⁹ Bizkaiko Meñakan jasoriko hitz arrunta, ‘putza galdu, *desinflarse*’ adierazteko.

²⁰ *Destaiuan* (edo *destajuan*), *abasberuan* sinonimo duela ageri da sartaldeko klasiko bazu-tzetan (Frai Bartolome, Pedro Astarloa), eta *albastoan* duela J. M. Zabalaren sermoietan.

horrekikoetan: *eze(d)uki*²¹, *ezleku*²² edo *ezamarren* gogora ditzakegu. *Ezamarrena*, *hamarrena* (diezmo) zerga zaharraren antonimo modukoa da, Joxe Migel Barandiaranek mitologia-ipuinetariko baten jaso duena:

“Lamiñek, *ez-amarrenakaz* bixiten ziriala esakerea da. *Ez-amarrena*, amarrenak egon ta eztagozala esatia da” (*Eusko-Folklore, Mater. y Cuestion.*, II, 734).

6.4.2. Eratorpen-atzizkietako adigarri bat edo beste ere jasoko ditugu.

— Mailegu-jatorrikoen, eta berariaz erromantzetikoen kasu bat edo bi hartuko ditugu aipuan. Bata, *-ero/-eru*, herri-hizkeran emankor eta indartsu ageri dena, baina idatz-ereduan bide hertsia goa ohi duena, idazleek galbahe zarratu-trinkoagoa darabiltelako susmopeko eratorri bidea baimendu orduan, maiz eragotzia izaten baitute. Lanbide eremuan, arrantzuari, *ezaguna* da *lebatzeru* (*Plentzia*, 143), ‘legatsetan dabilen ontzia’, nahiz gure hiztegiaren nekez ageri den. Beste eratorri askotan gertatzen den legez, *lebatz/legatz* izen zaharraren gainean eraikia da *-eru/-ero* ofizio-atzizkia. Izenondo eremuan ere *gezurtero* eta ildokoak badira.

Hor dugu ere *-(k)azo* ere, eskualde batzuetan *-kada* atzizkiaren zentzu-eremu berean jokatzen duena, ‘golpe, takada’ adieraz. Hala: *adarkazo* dugu *adarkada* adierazteko, *aitzurkazo*, *aitzurkada*-ren lekuan, edo *aizkorazo*, *aizkorakada*-ren ordez (*Sakana*, 4, 10, 11), Zeberio aldean ere *atxurkazu*, *atxurkazue*. Hauetarikoak apal ageri dira idatziz, are gutxiago erdal sunda hori aldean izanda, baina hala ere herri-literatura deritzagun genero apal horretan bai noiz edo noiz²³. Ezin ukatu ostera, esangura aldetik konnotazio bitxia eransten diola holako mailegu-atzizki batek erro-hitzak adierazitako lanabesaz ematen den kolpe edo takada horri.

Arterago Añibarrok jaso zuen *VocesBase* bilduman. Eta kontua da gaur Ibarrangelun Domingo Zuluagak erregistratua: “*Destaiuan* dabil berbetan (sin ton ni son, sin tener conocimiento)” (*Ibarrangelu*, 244).

²¹ *Eze(d)ukia* izenondo modura entzuten da batez ere gaur egun, *e(d)ukitsu* edo *aberatsa* denaren antonimo legez. Baina izen kategoriaz, ‘eztasuna, txirotasuna’ esanguraz ere lekukotua dago: “Zein beste erara aurkituten dan Gaztela, zorigaistoko ta *ezeukira* biurtuba” (*Bizkaiko Batzar Nagusiak*, 1854. J. A. Uriarteren itzulpena).

²² *Ezleku*, ‘bere lekutik kanpora, leku desegokian’ dagoenean zerbait, *ezlekuan* dagoela esan ohi da. Corpusetan ugarixeago lekukotua beste honetariko batzuk baino. cfr. *OEHI/DGV*.

²³ Antonio Zabalak aterariko *Euskal jokoak bertsotan* (II) liburuan lekukotua (Donostia, 1984).

Har dezagun *-ante* atzizkia. Atzizki hori mailegu oso diren *estudiante tunante* bezalako segida finkotetan guztiz ezagun egin denez, batez ere *Salaman-kara* kantuaren bidez, beste herri-hizkerako eratorri batzuetan ere badirau. Mogelen *Peru Abarka*-ko erabilera aipatuko dut anekdota gisa, hark ere hizkera jaso eta herrikoaren arteko tirabira barruan sentitu baitzuen. Gaitzesgarri zen Mogel ikasiarentzat atzizki hori, erdal usain argia medio zela, jakina. Horregatik *irakurlari* hobetsiko du Peru nekazariaren ezpainetan ezarriaz, hiztunen artean erabilia zatekeen *irakurlante* baztertzeko. Hitz hau Juan barberu kaletarraren ahoan ipiniko du (*PAb* 33)²⁴, baina askoz aurrerago (*PAb* 100) ohartzeko —edo agian ohartuta—, Peru herri-hizkeraren eredu garbiaren ahotan berriro: herri-hizkeran ezagun-erabilia zen seinalea.

— Har dezagun *-tza* atzizkia, besteak beste ugaritasun edo multzotasun balioa ohi duena *basatza*, *elurtzaledurtza* legezko eratorrietan. Baina hiztunak, adierazkortasun-indarraren premian denean, tradizioak nekez on egiten dituen eratorriak ere garatzen badaki. Hala sortzen dira *urtzak*, uholde baten ondorioz bideetan gerta daitezkeenak. Edo *haizetza*, haize zakar-bortitza egoki adieraz dezakeena, nahiz gure idatzi eta hiztegieta aztarren gutxi idoro eratorri horrek; *haizete*-k baino gutxiago nolana ere.

— Eratorpenekotzat ditugun atzizkiak badira, lexiko-sorkuntzaz haratago gramatika mailan, edo syntaxian, eginkizun zuzena hartzen dutenak, hizkuntza mintzatu idatzizko eruedetatik urrunago garatu direlako.

Har dezagun *-lel-ile* atzizkia aditz zaharren erroen gainean. *Joaille* izenak ipar hizkeretan *joaiten den* erlatibo perpausaren kideko gramatika du²⁵. Sartaldeko tradizio idatzian nekez dakusagu halakorik. Baina Markinan, *-taille-tzaille* atzizkiekin antzeko egiturak jasoak ditu ahozkotik J. Kalzakortak. Hala: *hori mezetara jutaille izen da (mezatara joatailea)* edo: *bere buru zaintzaillie da hori*, edo: *ez da bere gauzak esataillie* (bere gauzak esaten dituen).²⁶

Har dezagun *-ginen* ekintzazko atzizki adberbiala. Idatzizko corpusa ez da horren ugaria. Errefrau zaharretan bada Garibairen bat: *Nok bere gogoaz*

²⁴ Ikus *Peru Abarka*-n: *Peru*: “Eta dinozu gero *irakurlari* ederra zariala?” (ms 21). *Maixu Juan*: “Nik ezin dot *irakurlante* andija izanda bere” (ms 33).

²⁵ Hala *Intxauspeko alaba dendaria* kantuaren 1. ahapaldiko 2. lerroan esaten da: *goizian goiz josterat joailia*. Edo: *uso airean joiale propio*. (J.K.?)

²⁶ Jabier Kalzakortarengandik jasoriko lekukotasunak. Hark bere amari eta haren lagunei batuak. Gramatika hori adin batetik gorako markinarretan oraindino ere indarrean dagoen ezaugarri.

etsaginen (B 33) edo Barrutiaren beste hau: *Beti zaode, Jauna, faboreginen* (Acto 15). Baina mintzairan, sartaldeko eskualde batzuetan berariaz, atzizki gramatikalak bezain emankor nabari da batzuetan. Mendaron jasoriko ipuin batean, sorgin bategatik esaten da: *Baña erroskilla inen da biskotxo inen earki sakixan arek* (EHHA, *Antologia*, 53)²⁷.

Ildo beretsutik garatuak dira: *belarriak apalik (joan da)* erakoak ere.

6.5. *Fraseologia* alorrean murgiltzen bagara, gure lexikografiak oraintsura arte gutxi landuriko eremu agorrezina topatuko dugu, lehen aipatu hitz-kolokazio eta lokuzioen sailean bereziki. Horretan ditugu oraindino hutsunerik agerienak, azken aldion monografia-lan eroapentsu, zehatz eta metodologia ziurragokoen bidez, eta informatzaile fidagarrien laguntzaz, hornitzen doazenak apur-apurka.

Lexikografia sail horretako zenbait ertz aipatuko ditugu, ikuspegi ezberdinetatik, horretarako etnotestu, lexiko-bilduma edota osterantzeko ahozko hizkera erregistroak aztergaitzat darabiltzadala. Behinola Mogelek Peru Abarka euskara-maisu hautatu zuen modura, aipatu lanotara joko dugu guk ere emari bila; eskola gutxiko eta euskara oneko informatzaileak izango ditugu bide-erakusle.

Beizamako lekuko batek bere osabaren Erromara bidaia kontatzean bi-hiru aldiz darabilen esapide bat, han inor ez zuela ezagutzen adierazteko, hau da: *ezaunik inor etzun / ezaunik inor ez / jesuita bat bertatik jundakua, ezauna zuna*.²⁸ Egitura diferenteak dira hizkuntza barruan kontzeptu hori adierazteko, baina adierazgarria da guztiz, hiztun horrek lau aldiz beti egitura berbera erabiltzea. Nolanahi ere, kalkoa izatetik urrunago, edo inguru-gaztelaniatik aldenutuago, gaur idatziz gehienok darabilguna baino.

Kontaera bereberek isuri duen beste esaldi bat: *Andik aurre(r)a ez emen tzun inon bearrik izan*. Ez baita gauza bera, matiz zeheetan sartuz gero, *ez dut inor behar* edo *ez dut inoren beharrik*.

Lokuzioak, esamoldeen barietatea eta ugaritasuna da ahozko generoen beste ezaugarri agerienetako bat. Gure hiztegi eta corpusetan asko eta asko jasorik daude, eta idatziz heldu zaizkigunetariko asko *DGV-EHO* bilduman ageri dira. Justo Maria Mokoroa izan zen, besteak beste, gudu aurretxoko al-dian jada, hizkuntza baten barruko sena, hizkuntzaren berezko jitea bere

²⁷ EHHA (1999): *EHHA. Ohiko euskal mintzamoldeen antologia*. Euskaltzaindia, Bilbao.

²⁸ Beizama: Euskaldun baten komerriak Erroman. *EHHA. Antologia*, 63.

esaseretan, esamoldeetan zela ezagun azpimarratu zuena; *Genio y Lengua* saioan garandu zituen bere intuizio-aburuak, eta gerraoste luze ilunean eroapen handiz eta ekin etengabe osatu zuen *Repertorio de Locuciones* (1990). *Ortik eta emendik* bilduman benetako bihurtu zituen bere aburuok. Eta bide bertsutik ekin diote aspaldion beste batzuek, hiztegegileak eurak ere barne direla.²⁹

Ahozko erregistroetan lokuzioak aurkitzeak ez du corpus baten sailkaturik idorotzearen balio bera. Kontaera barruan txertaturik ageri izanak plus balioa du berekin. Ahozko jarioak horretan ere abantaila du, endemas hiztun on-seguru baten ezpainei darienean.

Adibide gutxi batzuk diogunaren argigarritzat:

— *Inon diren(ak)* aditz erlatibo egitura, hizketa jarioan, ‘asko, ugari, sekulako pila’ adieraz erabiltzen da adierazkortasun-gradu handia eman nahi zaionean, osterantzeko adjektibo edo zenbatzaile neutroago bat erabili ordez. Hala: *Kontuak atera egizuz zelango tertuliak armetan ziran hainbesteren artean, eta gero (...)* iñon diran *kontuak eta kontetan ziran, sorginenak edo lamiñenak edo dana dalakoarenak* (Gorbeie, 299).

— *Inori ikutu*, edo *ikuturik egin ez*, gazt. ‘meterse con alguien’ adierazteko. Emazte jada gogaitu batek esaten zion behin bere senar, hari ekiten gelditu barik ziharduenari: *Horrek aguantau niri ikutu barik? Bai zera!* Baina ipuin-kontatzaile busturiar gernikartu bati Aita Villasantek jasoriko batean, laminen izaera zela-ta, ipuin-amaiera hau entzun zion: *(Lamiñek) Iñok eureri ikutu ezik ezetan, ez eben kalterik egiten.* (*Eusko Folklore* II, 748). Idatzizko sorkuntzan mehatzago ageri ohi dira honetarikoak, zertan esanik ez.

— Etxalarko kontalari bati entzuniko istorioan, “Ardi bila joan eta bidean lo gelditu” delakoan, honako aditz perifrasiak darabiltza. Bata, *loakin gaintu*, ‘lo gogorrak hartu’; duda gabe, inguru horretako hizkeran ohikoa, baina idatzizko corpusetan bakan samarra. Berdin beste hau: *errista eman*, ‘agiraka egin’: *Etzazula, Antonio, etzazula erristik eman semeari, zure semea agitz nekatua dabila eta loakin gaintu du, eta ez da deus ere.*

— “Ikaraz | beldur handiaz egon” adierazteko lokuzio mordoia dira. *Lau dardan egon* edo *laborrian* | *lau orrian* egon. Zegaman *lau gorrian* era dugu:

²⁹ Espreski aipatu nahi nituzke mendebal hizkeretarako eredugarri gertatu diren lan bi: aspalditxoko Toribio Etxebarriaren *El Lexicón eibarrés* (*Euskera*, 1965-66) eta oraintsuagoko *Labayru Hiztegia* (Bilbao 2003), herri-esapideen aldeko ahalegin berezi bezala.

“Jangoikoa, bota jende oni inpernusko sue!. San Martiñek txingar danak batea bota zitun zuloti. Elizan jendea *lau gorrin tzeon*” (*Zegamako euskara*, 136).³⁰

6.6. *Atsotitz-errefrauen* eremua ere aipatu barik ez nuke utzi nahi. Mintzairari, ahozko tradizioari bete-betean atxikia den literatura-generoa. Idatzizko bildumek zerrenda aberatsa osatzen dute, hasi zaharrenetarik, idazle klasikoenetatik eta batez ere, Azkueren ondorik, xx. mendetik honunzkoek. Bilduma luzeak izendatuak badira ere, zerrenda mugatuak ugariak, lantzean herri, eskualde edo gune baten jasoak. Idatziz guganatu badira ere, ahoz entzunetatik transkribatuak ohi dira ia beti. Ahaztu gabe, badirela beste hizkuntza batzuetakoen itzulpen edo egokitzapenak.

Baina ezin ukatu hitzezko jardunean ohi duela errefraua bere kontestu naturala. Arrazoi, argudio edo iritzi bat on egiteko edo sendotzeko, errefraura jotzen du maiz hiztunak. Atsotitzak berbazko argumentazio baten barruan ohi du bere lekua, eraztunak erian bezala. Eta ahozko generoari dagokionez, etengabe biziberritzen ari den generoa da; batzuk betiko galtzen, beste batzuk sortzen, eta gehiengotan aldatzen eta giro berrietara egokitzen edo leku bateko hizkerara moldatzen.

Euskal errefrau erabilirik gehien-gehienak bilduma-zerrendaren baten jasorik aurki badaitezke ere, ahozko erregistroan beti ohi dira nobedadeak, berrikuntzak; gutxi batzuetan kontzeptu edo ideiarenean aldetik, sarriagotan aldaeraren edo hizkeraren aldetik.

Etxalarko lekuko bati jasoriko *istorio txiki* batetik hautatua dugu ondoko pasarte³¹:

“Egunez nekatua ibiltzen nintzen eta jetsitzeko faltak [ardiak] utzitzen nintzen egunean, biharamun goizean izeba hasitzen zitzaizkidan ohiuka: ‘Jabier, joan hadi jeistera’ eta ni, puf! pereza eta... Ez lehenbizikoan, ez bigarrenean eta kasi hirugarrenean ere ez nintzen jeikitzen. Eta hartua nuen boz bat, oldarkor erraiten zuen: ‘Ai Jabier, Jabier! *Bertzearen buztanarekin eulia kendu behar duenak, maiz euliekin egon beharko du*’. Hura aditzearekin jeiki eta martxa!”

7. Arlo semantikoa aipatuz amaitu nahi nuke. Joera jakina da hizkuntzan, bai hiztunetan, bai eredu jasoan, polisemiatik alde egitekoa, eta ahal dela, hitz bakoitzak esangura nagusi bat izatea, besteak erdi-izkutatzen direla; edota alderantziz, esangura zehatz baterako hitz bat hobestea, gainerakoak bazterretsiz.

³⁰ Azurmendi, Joxe Migel (1998). *Zegamako euskara*, Lazkao. VII. Gerriko ikerlan-sariketa.

³¹ Euskaltzaindiaren ATHC egitasmoko Corpusetik hautaturiko txatala. Etxalarko lekuko. Biltzailea: Aritz Abaroa.

— *Irakurri* hitzaren aritik abiatuko naiz. Herri-hizkeran nork ez ditu ezagun *leitulleidu* aldaerak? *Irakurri* garbiagoak hartu dio, halabeharrez, leku guztia aurrekoari. Eta alderantziz, idatziz aditz honen erabilera izkribuei loturik dago, eta ez ahozko tradizioz oso hedaturik dagoen ‘aletu, garandu, ‘desgranar’ adierari, nahiz hegoaldeko euskalki guztietan ondo lekukotua izan balio hori: *gaztainak iakurri* (Altsasu), *liñaberia euzkitan irakurten* (Arantzazu-Oinati). Mogelek Peru Abarkaren berba-jardunen hitzaurrean irudimen handiz elkarkidetzen ditu adiera biok, nahiz etimologia kontuan ustel egin:

“Asi, *Eracurri*, significa, *urritu eraguin*; y el que lee va disminuyendo, o desgranando las letras. Se dice *artaburubac iracurri*, o *garandu*; y los bascongados lo han aplicado a la lectura.” (*Prol PerAb*, XXXI).

— *Erantsi / eratsi* aditzak lexiko-testuetan ohi duen adiera nagusia ‘adherir, unirse’ zentzu orokorra da. Beste hitz askotan bezala, batez ere ahozkoan —edo bateko edo besteko lekuan ere esan nezake— adiera bereziak hartzen dituzte, tradizio literarioan bakan ageri direnak, baina aldi berean guztiz ustiagarri lireratekeenak, era ona etorritz gero. *Era(n)tsia* beste leku batzuetan maileguz ere adierazten da: hainbat *etxera inkaua*, *arrimaua* (inkatua, arrimatua), odolekoa ez dena, etxeko seme edo alabarekin etxera ezkondua. Lamina-ipuina batean, orrazia ostu diotenaren horretan, zemaia honela zuzentzen dio laminak etxeko andre erantsiari: *Intxusko eratsiye / Ekazu neure orraziye / Ezpabere kenduko ’tsut / Kortako bei nagosiye* (Bermeo. *Eusko Folklore* II, 751).

— Har dezagun *ezbai* hitza. Tradizio idatzian, seguruen, ‘duda’ adiera izango da nagusi. Baina bizkaieraren sartaldean badu ‘eztabaida, tema, ikamika’ adiera ere, *Lab* hiztegiak 2. adiera legez jasorik dakarrena. Baina auzi edo pleitu gai-eremuan ezaguna da adiera hori: “*lehenago be Zeberion jente inportantea egongo zan, araño joateko juizioa egiten edo ezbaiari indarra emoten!*” (*Gorbeie*, 300). *Ezbaiari indarra eman*, hori da hitzaren ingurune zehatza hor, gazt. ‘avivar, incentivar el pleito’.

— Itsas arrantzaren alorra har dezagun. Euskal hiztunek tradizioz euskaraz ezagutu duten lanbide horretan hitz berezi bitxiak badira, proiektio zabalagoa merezi luketenak.

Troinu, ‘korapilo, marapilo’ adierazteko, Uribe-kostaldean arrunta den hitza, bai itsas, baina nekazal, bai osteango jardunbideetan, eta guztiz ezezaguna adiera horrekin beste leku gehienetan. Interes aparta du, besteak beste, berez *tornu* mailegu ezagunagoaren aldaera delako, Detxeparek euskararen kantuan darabilen *thornuia* berbera sakonean, baina batez ere Mikoleta bilbo-

tarrak dakarren esangura beragaz dirauelako gaur ere, itxura-aldatzea gorabehera: “Nudo, *tornua*” (Mic 8r.).

Uri hitza Uribe-kostan bildurik ageri da, itsas portuko edo itsas inguruko sakonera adierazteko, gazt. ‘calado’.³²

— Atal apartekoa eskatuko luke mailegu-hitzen fenomenoak, ahozkotasunaz dihardugula. Gorago ere zenbait puntutan aipatu dugu. Joera orokorra da, eta aldioro arrapizten dena Pirinioz beheko euskal literaturan —eta Ifarraldekoan ere bai, batez ere xx. mendez geroz— hitz garbien hautua, maileguzkoen kaltetan. Larramendi eta ondokoetan sustrai zaharrak dituen fenomenoak dugu hori, bereziki literatura landuan —edo jaikian esango ahal dugu!— errotua.

Ahozko baliabideen ekarria hemen ere, lexiko objektibo eta neutroan baino gehiago, konnotazio bereziz markaturiko hitzetan bilatu behar da. *Lastima gorria!* zerez ordezkia genezake? Edo Sakana aldean jasoriko *Lastima ez dek burube bertan hausten!* (Ojala...!) (*Sakana*, 188).

— Aditz kategoriako hitz batzuk ere aipatu nahi ditut.

Batetik, hitz maileguzkoak: agian mailegu izateagatik, agian hedadura urrikoak izateagatik —eta seguru, idazleek susmopean hartu izan dituztelako— literatura munduan bazter gertatu dira hauetarikoak, beste hitz-kategoria batzuetakoak bezala.

Bizkai sartaldean guztiz hedaturik dago *koiu* edo *koxi* aditza —gatzelania-ko partizipiotik beregandua, *kojidu*—. Herri-tradizioaz landa arrakasta murrizta eduki du testuetan, nahiz eremu semantiko bereziak izan *hartu*, *arrapatu* eta *koiu* aditzek maiz.³³

8. Ondorio arin batzuk, ahozko produkzio hautatuen bilketak egiten ekitearen alde.

Orain arte biltze aldera egin dena gutxi ez izanik ere, gaur egungo ahalbide teknikoek lehen baino askoz gehiago errazten dute biltze-lana: baldintza onetan eta kalitate hobegoz egin daiteke lehengo aldietan baino.

³² Janire Enzunza (2008): *Plentziako portua. Arrantzaleen euskararen ikerketa etno-lexikoa*. Tesina. Deustuko Unibertsitatean 2008ko irailean aurkeztua.

³³ Errefrauek ezaguna da Txorierri aldean ondokoa: “Derio, Zamudio, Sondike ta Loiu, asko erein da gitxi *koiu*”. Azkuek *Eusk. Yakintza*-n, 1514. zenbakiaz beste era bi hauetara dakarrena: “Asua ta Erandio, Sondika ta Loiu, arto erein ta gari *koiu*” eta “Asua ta Erandio, Sondika ta Loiu, ahaleginak egin arren, arto gitxi *koiu*”.

Ditugun aukera berriok batetik, eta dugun hizkuntzaren gizarte-egoera kontuan izanik, seinale garbiak daude asko eta gehiago aldatzen joango dela aurrerantzean, eta denbora galtzen utzi barik, geure ahozko ondarea hazten eta mardultzen eroan behar dela garbi ikusten dugu.

a) Ahozko hizkera belaunez belaur asko aldatzen ari dela, hizkuntza egonkor eta sendotetan ohi den baino askoz abiada handiagoz; belauraldialdatzeaz tokian tokiko hizkerak ere aldaera nabariak jasaten dituztela, eta hainbat kasutan galtze-, endekatze- edo pobretze prozesu garbian daudela.

b) Sokorru larririk jotzeko asmo barik ere baina, ahozko hizkuntza produkzioak, ahozko testuak biltzen jarraitzea guztiz komenigarri dela, —premia biziko ere esan nezake—, baldin langintza hori baldintza egokiz egiten bada: informatzaile egoki eta kualifikatuak batetik; euskalki eta hizkera guzti-etakoak modu orekatsuan ahal dela; galde-sorta berezi, kasuan kasurako antolatutak erabiliz, eta bitarteko tekniko aurreratuenak eskuan direla.

c) Bildu corpus horiek erabilgarri gertatuko diren eran sailkatu eta katalogatu behar direla, horretara euskal hizkuntza ondare sendoago baten jabe izan dadin. Katalogatze-jardunean testu-unitateak interesaren arabera markatu behar direla ere.

d) Interesik gehieneko testu-atalak transkribaturik edukitzera jo behar dela, horretara ondoren datozkeen era guztietako ikerkuntzetara bidea errazturik gerta dadin.

e) Material horren ustiakuntza alderdi askotatik egin daiteke, baina ez gutxien lexikografiatik, gramatika eta morfosintaxiaren aldetik, estilo-baliabide diferenteen aldetik, edo urrunago jota, etnografia, historia edo beste ikasadar batzuetatik.

Esan dut. Eskerrik asko.

Bibliografia

EHHA, 1999, *EHHA. Obiko euskal mintzamoldeen antologia*. Bilbao, Euskaltzaindia.

Etxebarria, J. M., 1995, *Gorbeia inguruko etno-ipuin eta esaundak*. Bilbao, Labayru Ikastegia & Bilbao Bizkaia Kutxa.

Eusko-Folklore. Materiales y Cuestionarios / José Miguel de Barandiaran. I, II liburukiak. Colección Sara, 7. Ataun, Barandiaran Fundazioa, 2006.

Gerrenabarrena, M. & Kamiruaga, A., 2008: *Antxinako Berriz. Bizimodua eta ohiturak*. Laratz, Labayru Ikastegia. Bilbao.

Urrutia, A. (zuz.), 2003, *Bizkaiko Batzar Nagusiak eta euskara: 1833-1877: euskarazko testuen bilduma eta azterketa*. Bilbo, Bizkaiko Batzar Nagusiak.